



LANBIDE-PERFIL ESPEZIFIKOAK DITUZTEN LANPOSTUAK

1995eko irailaren 13ko Langileriaren Kudeaketarako Zuzendariaren Ebazpenak, EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko izangaien zerrendak kudeatzeari buruzko argibideak onartzen dituenak, 5.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, “prestakuntza osagarria, oro har eskatutakoaz gain, eskatzen duten lanpostu batzuk betetzeko gaitasunik ez izatea izango da lanpostu horiei uko egiteko justifikatutako arrazoia, Hezkuntza Ikuskaritza Teknikoak alde aurretik txostena egin ondoren, titulazio baliokidea duten zenbait irakasgaitan edo marrazketako eta Lanbide Heziketako lanpostu batzuetan gertatzen den legez. Lanpostu horiei uko egin izatearen ondorioz, ezin izango zaio antzeko ordezkapenak betetzeko izangaiari berriro deitu eta, halaber, ikasturtearen hasieran baino lehenago egingo da ezaugarri horiek dituzten lanpostuen zerrenda”.

Prestakuntza osagarria, titulazio akademikoaren beraren ondorioz izaten denaz gain, bereziki beharrezkoa da heziketa-zikloetan klasea ematen duten irakasleentzako zenbait lanpostutan, berorietan aritzeko ezagutza edo esperientzia espezifikoak eskatzen baldin badira, 2002ko uztailaren 12ko Ebazpenak, “2002/2003ko ikasturterako kurtsoaren hasierako Bigarren Hezkuntzako esleipenari buruzkoak, 3.4. puntuan xedatutakoaren arabera.

Prozesu honek bitarteko irakasleei eta ordezkoei eragiten die, erdi edota goi mailako heziketa-zikloak ematen dituzten ikastetxe publikoetako lanpostu hutsak bete nahi baldin badituzte. Lanpostu hutsak esleitzeari buruzko Ebazpenaren bidez arautuko den prozesuan esleituko dira lanpostu horiek, ondorengo prozeduraren bidez:

1.- Esleipen-ekitaldia izan aurretik, lanbide-perfil espezifikoetako lanpostuak nahi dituzten izangaiek informazio zehatza izango dute, eskaintako lanpostuen perfil espezifikoari eta eskaintzen diren ikastetxeari buruzkoa.

Perfil espezifikoak lanpostua osatzen duten lanbide-moduluen eta heziketa-zikloen izenak sartuko ditu. Halaber, eskaintzen diren lanpostuen perfilaren zati diren lanbide-moduluei lotutako gaitasunei buruzko informazioa ere emango zaie izangaiei.

2.- Lanpostuak lortzeko perfil espezifikoa ezinbestean bete behar dutela izangaiak ohartarazi ondoren, lanpostuak esleituko dira, oro har zehaztutako esleipen-ordenaren arabera.

3.- Lanpostua esleitu ondoren, ikastetxeak ezin izango du bere perfil espezifikoa aldatu, esleipen-ekitaldian eskainitakoarekin bat etorri behar duena.

4.- Lanpostua hartzen duenak ikastetxean aurkeztuz gero, lanpostu horretan aritzeko gai ez dela aitortzen baldin badu, Langileriaren Kudeaketarako Zuzendaritzak Hezkuntza Ikuskaritzaren informea kontutan izanik ordezkatu egin ahal izango du, etorkizunari begira beste perfil espezifiko bateko lanpostuak betetzeko pertsona horrek dituen eskubideen kalterik gabe

5.- Lanpostua eskaintzen duen ikastetxeko Zuzendaritzak, astebeteko epean lanpostua esleitu den datatik kontatzen hasita, hartu duen irakasleak horretan aritzeko eskatutako gaitasunak betetzen ez dituela iritziz gero, jarraian adierazten den eran jokatu da:

- 1.- Ikastetxeko Zuzendariak erreklamazio bat egingo dio Langileriaren Kudeaketarako Zuzendaritzari, lanpostua hartu duenak gai hori irakasteko gaitasun espezifikoa duenentz egiaztatzeko.
- 2.- Hezkuntza Ikuskaritzak esku hartuko du aurkeztutako erreklamazioa ebazteko. Izan ere, ikuskariak egiaztatu beharko du lanpostua hartu duen irakasleak horretarako gaitasun espezifikoa duen ala ez, eta ikastetxer kanpoko aditu baten iritzia eskatu ahal izango du.
- 3.- Hezkuntza Ikuskaritzak txostena helaraziko dio Langileriaren Kudeaketarako Zuzendariari, lanpostua hartu duen irakaslea horretan utzi ala kentzeko, interesatuarekin alde aurretik hitz egin eta sindikatuei alegazioetarako tramitea eman ondoren.

6.- Langileriaren Kudeaketarako Zuzendariak esleipenduna ordezkatzearabakiz gero, eragindako pertsonak ez ditu bere eskubideak galduko, etorkizunari begira beste perfil espezifiko bat duten lanpostuak betetzeko.